

EHIZA GARAIA PURI-PURIAN

Hernanin ehizeko 730 lizentzia atera ziren iaz, eta aurten dagoeneko 652 egin dituzte

■ Postuen zozketan, ostiralean jarri zuten errekorra Txantxangorri elkarteak: 300dik gora ehiztari.

HASI da ehiza garaia, eta dagoeneko sumatu dira lehen tiroak Hernaniko mendietan. Asteburuan hego haizeak etorrera bizia egin digu eta berarekin ekarri ditu uso bandak. Txantxangorri elkarteak zozketatzen dira Hernaniko postuak, eta ehiztari asko azaldu da asteburu honetan, sortea. Ostiralean 300dik gora azaldu omen ziren, inoizko gehiena, askoren ustez.

Guztira 110 postu

Hernanin 110 postu zozketatzen dira egunero: 30 Arizmendin, 30 Larregainen eta 50 Asketan. Postu horietan iaz 2.800 bat pieza bota zituzten. Gehiena birigarroa 2.525; usoak 200; tortolak 11; eta oilagorak 22. Postuetatik kanpora botatako piezak ez dira kontrolatzen.



Lizentziak berdintsu urtero Hernanin iaz 730 lizentzia egin ziren ehizerako (Gipuzkoan, 21.012). Aurten, dagoeneko 652 egin dira eta oraindik jende askok eskatuko duela esan digute. Ehiztariak estatu espainoleko edozein lurraldetan ehizatu dezake, baina, aurrez baimena eskatu behar du bere komunitate autonomotik kanpoko nahita.

Diputazioak egiten ditu lizentziak, baina, Txantxangorriren bidez ere eskatu litezke, nahi izan ezker (ez dago sozio izan beharrik). Lizentzia lehenengoz atera nahi duenak urtero dauka aukera eta esamin teoriko eta praktikoa bat egin behar ditu.

Postuen zozketa egunero

Postuen zozketak egunero, 20:00etan, Txantxangorri. □

Helduen Hezkuntza zentroak liburutegi eta ordenadore gela gaur irekiko ditu

HELDUENTZAKO Hezkuntza zentroak liburutegia eta ordenadore gela gaur irekiko ditu herri-arrantzat. Aldizkariak, liburu, entziklopedia eta abar, multimedia materiala, CD eta bideoak, ordenadoreak, interneta eta abar daude aukeran. Zerbitzuak Udalaren laguntza du eta publikora zabaldua kultur eskaintza auzoei ere ematea lortu nahi da. Gainera aurten goiz eta arratsalde egongo dira irekita, bai liburutegia eta bai ordenadore gela: 11:00-13:30, 18:30-21:00. Astelehenetik ostiralera.

Helduentzako Hezkuntza zentroa Antziola 62an dago. Telefonoa: 943 335318. □

UDAL AURREKONTUA

XXXXXXX

XXXXXXXXXXXX □

MAHAI TENISA - LEHENBIZIKO MAILA



Ezkerretik: Kim Pla, Javi Olazabal, Gorka Guereñu eta Aitor Bereziartua.

Hernani 0 SS de los Reyes 4

ARRUNT partidu zaila jokatu zuen atzo Easo-Hernani taldeak kiroldegian. 0-4 galdu zuten etxekoek San Sebastian de los Reyes taldekoen kontra, nahiz eta partiduren batean bertakoek kanpokoak estutu arazi. Guztira lau partidu jokatu zituzten. Emaitzak honakoak: Aitor Bereziartua 0-3 galdu; Gorka Guereñu 0-3; Javi Olazabalek 2-3; eta Kim Pla 2-3.

Mailari eustea helburua

Jokatutako bi partiduak galdu ditu Hernanik. Hernaniarrak iaz igo ziren lehenbiziko mailara, eta aurtengo helburu nagusia maila mantentzea da, Txema Armentia arduradunak esan digunez. □

ELKARRIREN HITZALDIA

“Egungo egoerari aurre egiteko alternatiba”

DATORREN ostegunean urriak 24, hitzaldia antolatuta du Elkarririk Biteri kultur etxean. Hitzaldia Bake Konferentziaren barruan dago, eta hain justu, zein egoeratan dagoen azalduko dute. Hizlaria Fernando Arzallus izango da. Ostegun honetan, arratsaldeko 19:30etan, Biteri kultur etxean. □

Allianz 
ASEGURUAK
Agustin Ezponda
AGENTZIA
Tel.: 943 557 326
656 735 109

AITAN-ETXE
TABERNA
EGUNEKO MENUA
Larramendi 15 - Tel: 943 550046
HERNANI


mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI


HERNANI BIDAIAK
Urbietan etorb. 6 - HERNANI
Tel: 943 33 00 49 - 33 01 74
e-mail: hernanib@teletel.es
Hernanitik munduko leku guztietara
iristen lagunduko dizugu.

AMEGAR
etxe tresnak
altzariak

Bisita ezazu gure web orria
eta ikusi gure eskeintza.
www.amegar.net
Txirrira kalea 15 - HERNANI
Tel 943 551125 - Faxe 943 551603

Herritar talde bat Antziola-Latsunbe enlazearen kontra firma biltzen ari da

■ Eskatzen dute parkea eta paseoa bere horretan uzteko, trafiko arazoak beste konponbide bat izan dezakeelako ■ Jakin arazi dutenez 400 firmatik gora bilduak dituzte.

HERNANIAR talde bat firma biltzen ari da Udalean onartu berri den Antziola-Latsunbe enlazearen kontra eta orain dagoen paseoaren alde. *Tranbide* izena du taldeak eta Kronikara bidalitako komunikatuan diote dagoeneko 400 pertsonak baina gehiagok firmatu dutela *Paseoari bai, errepideari ez* testua. *Tranbide* taldekoek diote enlaze berriari buruzko "jendearen ezjakintasanak" harritu dituela, eta informatu ondoren paseoaren aldeko eta enlazearen kontrako jarrera asko

ikusituztela. Beren ustez, "Hernaniko Udalak, lanak hasi aurretik datu horiek kontuan hartu eta bere asmoak berraztertut beharko lituzke"

"Berdegune bakarretakoa" Testuak dio hernaniarrak maiz paseatzen dutela tranbide zaharrea eta Udalak errepide bihurtu ezker "daukagun berdegune bakarretako bat" desegingudela, "zuhaitzak moztu eta zementua sartuz". Trafiko arazoak beste konponbide bat izan lezakeela uste dute, eta konpon-

bide hori enkargatutako trafiko estudioa bukatzean ikusi beharko litzakeela. Idatziak bidea "dagoen bezala" mantentzeko eskatzen du: "ez dugu nahi zuhaitzak moztea eta autoak, kea eta zarata ezartzea" dio.

Ostegunean ferian

Tranbide firma biltzen jarraitzeko asmoa du. Datorren ostegunean ferian egongo dira 16:00etatik 19:00etara. Babsa telefonoz eman nahi duenarentzat ere jarri dute zenbaki bat: 943-550577. □

ARRAUNA



Ezkerretik, Arkaitz, Luis eta Aitor Goñi. Azarotik aurrera egunero entrenatu beharko dute.

Goñitarrak ilusioz dijoaz Kortaren Castrora

■ Luis, Aitor eta Arkaitz Goñi dagoeneko hasi dira beren kasa entrenatzen.

GOÑI anaiak ziaboga ederra eman dute beren arraun bizi-tzan. Luis, Aitor eta Arkaitz, Castrok fitxatu ditu eta datorren denboraldian Kortaren *La Marineran* ibiliko dira arraunnean. Hiru anaiak gustora daude eta ilusio handiz hartu dute erronka berria. Izan ere, ez da broma izango datorren urtean Castron arraun egitea.

Orio eta Ondarrutik

Luis eta Arkaitz Goñi Orion

ibili dira azken denboraldietan, eta Aitorrek Ondarruko trainerua utziko du Castrora joateko. Luis eta Arkaitz justu Kortak Oriotik alde egin zuen urtean joan ziren Oriora, eta ez dute Ortzakako patroiarekin entrenatzeko aukerarik izan.

Castroko tripulazioan zer leku izango duten galdetuta, goñitarrak ez dakite Kortak zer plan izango dituen berekin. Dakitena da Kortarekin mutil guztiek egiten dituztela urtean

hainbeste estropada.

Castrok azaroan hasiko ditu entrenamenduak, baina, goñitarrak dagoeneko hasita daude entrenatzen Hernaniko kiroldegian. Aurrera begira ere, aste barruan hemen entrenatuko dute eta asteburuan Bilbora joan, Castrok ureko entrenamendua Bilbon egiten duelako. Asteko zazpi egunetan entrenatuko dute denboraldia hastean, Arkaitz eta Aitorrek Castron gelditzeko asmoa dute. □

FUTBOLA -EMAKUMEZKOEN LIGA



Lehenbiziko 5 partidutatik 4 irabazi eta 1 enpatatu dute.

Hernanik 4-0 irabazi, eta 2garren

■ Markos Trejo entrenatzailea gustora bukaeran.

EMAKUMEZKOEN taldea denboraldi hasiera bikaina egiten ari da. Bost partidu jokatu dituzte eta lau irabazi eta bat enpatatu dute. Atzo Usurbil taldearen kontra jokatuzuten eta aixa irabazi: 4-0.

"Lo atera dira hasieran"

Markos Trejo entrenatzaileak gustora hitz egin zigun parti-

du bukaeran, baina, gehixeko eskatzen omen dio bere taldeari: "hasieran lo zeuden eta kosta egin zaie esnatzen. Gero erraz irabazi dute".

Klasifikazioan bigarren postuan daude hernaniarrak eta partidu bat gutxiagorekin. Hurrengo partidua Amara Berriren kontra. Amarakoak hiru partidu galduta daude. □

HERNANI INSTITUTUA



Inglaterrara joan diren zazpi ikasleak bi irakaslerekin.

Zazpi ikasle Ingalaterran

HERNANI Institutuko zazpi ikasle Ingalaterrara joan dira praktikak egitera. Hilaren 13an abiatu ziren eta abenduaren 8an etorriko dira bueltan. Ikasleak *Turismo* batxilerrakoak dira.

Lehen bi asteetan ingeleseko klaseak hartuko dituzte eta beste sei asteetan praktiketan

egongo dira, batez ere hotel-tan. Estantzia, berriz, Ingalaterrako familietan egingo dute.

Leonardo da Vinci planaren barruan joan dira ikasleak Ingalaterrara. Ikasleek ez dute ezer ordaintzen eta diru laguntzak Europatik eta Eusko Jaurlaritzatik jasotzen dituzte. □

KIROLA

ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA		PELOTA		BOLEIBOLA	
Taldeak		Taldeak		1 Maila	
Gorengoak	Hernani 2-Amaikak Bat 0	Gipuzkoako txapelketa		XAKEA	Hernani 1-Laredo 3
Emak. Liga	Hernani 4-Usurbil 0	Pal gom	Manzidor-Martinez 30 / Kuku 25	XAKEA	Hernani A 1 - Hernani B 3
1. Errejon	Baskonia 1-Hernani 0	Pal motz	Kuku 20 / Ubarretxena-Galartza 40	WATERPOLOA	
Gazt. Nazi.	Rietuerto 3-Hernani 3	Afizionia	Zazpitu 22 / Unai Alvarez 14	Gipuzko L	Izarraitz 28 - Hernani A 2
Gazt. Ohor	Hernani 3-Anaitasuna 2	Jubenila	Sarasua 21 - Artano / Aurrera 22	Euskal L	Hernani A 9 - Barakaldo 6
Kad. Ohor	Hernani 0-Maria Bihotza 1	Jubenila	Añorga 22 / Mikel Arrieta 2	ERRUGBIA	
Kad.2garr.	Sanpedrotarra 0-Hernani 4	Kadetea	Andazpe 22 / Gurrutxa-Irazustab 0	Sen. 1 Nazi.	Rioja 11-Hernani 29
Haur. Ohor	Lagun Onak 1-Hernani 1	Kadetea	Añorga 15 / Zabala-Aizpitarte 22	Sen. Eusk	Hernani 12-Arrasate 58
MAHAI TENISA		Kadetea	Goierri 22 / Arregi-Apaolaza 11	Jub. Gip.	Ordizia 52-Hernani 29
1 Maila	Hernani 0-SS de los Reyes 4	Kadetea	Goierri 5 / Aitor Gorrotxategi 22	Kad. Lag.	Hernani 30-Getxo 5
Auton	Leka Enea 2-Hernani Easo 4	Kadetea	Artola 22-Fernandez / Igeldo 17		

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093
 ► Udaltzaingoa: 943 333288
 ► DYA: 943 464622
 ► Anbulatorioa: 943 006666
 ► Jokalari anonimoak 943 331103

FARMAZIAK

► Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri 11 ☎ 943 336077
 ► Gazez: Bidaur Lasarte. Jaizkibel 2 ☎ 943 362652
 ► Astearte: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087

► Gazez: De Miguel Lasarte. Nagusia 32 ☎ 943 361556

ASTEAZKENA

► Egunez: Bilbao-Sagas Urbietta 7 ☎ 943 552941
 ► Gazez: Rodriguez Lasarte. Nagusia 42 ☎ 943 361774

IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai. Kardaberaz kalean, Pana parkerako bistak, 2 gela, sala, sukaldia, 2 komun eta aparkatzeko plaza erreserbatua. ☎ 646 47 02 58

Pertsona bat behar dugu tabernako sukaldian lan egiteko. Interesatuak deitu ☎ 943 55 67 06

Opel Corsa 1.2 daukat salgai. SS-AL matrikula du eta 110.000 km dauzka ☎ 943 55 72 06

Ford Transit furgoneta daukat salgai. Furgoi luzea da, aire egokitua eta airbag-arekin. Matrikula SS-BB. Prezioa 8.000 euro. ☎ 655 74 92 54